



Porteriako eremuak eraldatze sakona biziko du datozen urteetan

El objetivo: solucionar el riesgo de inundabilidad y revitalizar el barrio de la Portería

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Ereindako haziak hasi dira loratzen
- ↪ Kirol eremu eraberrituak herrian
- ↪ *El barrio de la Portería sufrirá una gran transformación en los próximos años*

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Memoriaren eguna
 - ↪ Elkarbizitza eraikiz
 - ↪ Igartzan bizikletentzako mahuka
 - ↪ XXXIII. Odolki-dastaketa eta lehiaketa
 - ↪ Mendi astea
 - ↪ Igartza Musika Beka entzunaldiak
 - ↪ Irisgarritasuna hobetzen
 - ↪ Dantzan.com-en eskutik ikastaroa
 - ↪ Rokodromoa berritzeko lanak
 - ↪ Santa Zezilia eguneko ekitaldiak
 - ↪ Azaroak 25

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ JAKOBA ERREKONDORI elkarrizketa
- Lurra landu, lurraz bizi, lurretik elikatu

BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA

GUTUNA

Aitor Aldasoro

Beasaingo Alkatea

**EREINDAKO HAZIAK HASI DIRA LORATZEN**

Beasainen aurrera eraman nahi ditugun proiektu guztiak ez dira egun batetik bestera martxan jartzen diren horietakoak, ezta bakarrik gauzatu ditzakegunak ere. Batzuk lanketa sakon eta ahalegin berezia eskatzen dute eta horietako bat da, hain zuzen ere, Porteriako eremuari dagokiona.

Urteak daramatzagu uholdeen arriskuaren arazoari irtenbidea emateko CAF eta URA Ur Agentziarekin elkarlanean. Hainbat bileren ondotik dator hitzarmena, CAF-eko Porteriako eremuak biziko duen eraldaketaren lehen urratsa izango dena.

Uholdeen arriskuari irtenbidea emateaz gainera, eremu osoa eraberrituko da; oinezko zein autoentzako zubi berria eraikiko da eta bidegorria mantenduz norantza bikoitza berreskuratu ahal izango da bertako trafikoa arazoei irtenbidea emateko. Ibaiaren ibilgua zabaltzen denean, Gipuzkoa plaza eta Arana kalea lotzeko zubia ere eraiki ahal izango da, orain arte ezinezkoa izan dena ur-emaria dela eta.

Beraz, eraldaketa izugarria ekarriko duen hirigintza proiektu handi bat izatetik haratago, pertsonak helburu dituen proiektua da, herriarren eta auzotarren ongizate eta bizi kalitatea hobetu eta aukera berriak ahalbidetuko dituen.

Portería: resultado de años de trabajo

El convenio a tres entre CAF, URA y el Ayuntamiento para dar solución al riesgo de inundabilidad de la Portería es el resultado de años de trabajo.

Mi equipo y yo nos comprometimos a dar pasos firmes para solucionar este problema y estamos camino de hacerlo. El barrio de la Portería va a sufrir una gran transformación en los próximos años. Además de dar solución al problema de inundabilidad, se reurbanizará la zona pudiendo recuperar también la doble dirección para solucionar el problema de tráfico existente.

El ensanchamiento del cauce del río en la Portería permitirá a su vez la construcción del puente entre Gipuzkoa plaza y Arana Kalea, proyecto que hasta ahora ha sido imposible. Por tanto estamos trabajando y seguiremos trabajando para sacar adelante proyectos, pequeños y grandes, que nos permitan mejorar el día a día de todas y todos los beasaindarras.

**KIROL EREMU
ERABERRITUAK HERRIAN**

Herriko eremu ezberdinen aprobeitxamendua handitzeko helburuarekin, Udalak hitzarmena sinatu du La Salle ikastetxearekin eta BKL saskibaloia taldearekin BKL-k eskola orduetatik kanpo jolastoki estali berrian entrenatzeko eta partiduetan jokatzeko aukera izan dezan.

Beraz, BKL bere jatorrira itzuli da saskibaloia herri erdigunera ekarri, eta horrek, kiroldegiko kantxa beste erabilera batzuetarako libre uzteaz gain, eragina izango du, bereziki partiduetan, tokiko merkataritzan eta ostalaritzan.

Ezkierdi pilotalekua, Eskola Kirolerako

Ezkiaga auzoko Ezkierdi frontoian zenbait berrikuntza egin ditu Udalak Eskola Kirolerako haurrek eta BKL saskibaloia taldeko kideek bertan entrenatu dezaten. Horretarako, lurzorua egokitu eta areto futboleko eta saskibaloiko pistak pintatu dira; igo eta jaitzi daitezkeen saskibaloia saskiak jarri dira eta areto futboleko ateak ere kokatu dira.

Con el objeto de mejorar y aumentar el uso de los diferentes espacios del municipio, el Ayuntamiento ha firmado un convenio con el centro escolar La Salle y BKL para que los equipos de BKL puedan entrenar y jugar los partidos en el nuevo patio cubierto del centro fuera del horario escolar. Asimismo, se ha adecuado el frontón Ezkierdi para que los niños y niñas del Deporte Escolar y de BKL puedan entrenar en este espacio. Para ello se ha acondicionado y pintado el suelo y se han adecuado las canastas y colocado nuevas porterías.



EL BARRIO DE LA PORTERÍA SUFRIRÁ UNA GRAN TRANSFORMACIÓN EN LOS PRÓXIMOS AÑOS



La zona de la CAF en la Portería está declarada como zona de riesgo por inundabilidad. Es por eso que, el equipo de gobierno lleva mucho tiempo trabajando sobre el posible derribo de la Portería de la CAF para dar una solución definitiva al problema.

El convenio a tres entre la empresa CAF, la Agencia Vasca del Agua URA y el Ayuntamiento de Beasain es el resultado de mucho trabajo. Este documento, que se firmará en breve, define las fases, los tiempos y las responsabilidades de cada una de las partes firmantes.

El derribo de los edificios de la CAF permitirá el ensanchamiento del río y de la calle Jose Miguel Iturrioz en ese tramo. La ampliación del cauce del río Oria además de dar solución al problema de inundabilidad que padece esta zona de Beasain, permitirá también la construcción de un nuevo puente peatonal entre la plaza Gipuzkoa y la calle Arana, acercando así el aparcamiento al centro urbano y mejorando el acceso a la zona comercial.

FASES previstas:

1. CONSTRUCCIÓN DE NUEVOS EDIFICIOS DE LA CAF

Nueva oficina técnica y oficina de sustitución de la Portería.

2. DERRIBO de la PORTERÍA

Entrada, pasarela y puente.

3. ENSANCHAMIENTO DEL CAUCE

4. REURBANIZACIÓN Y CONSTRUCCIÓN DEL NUEVO PUENTE

Puente para peatones y coches, ensanchamiento de la acera en el lado de las casas y doble dirección para el tráfico, manteniendo el bidegorri y la acera en el lado del río.

CAF inguruan dagoen erreka-errekaren estutzeak uholdegarritasun arriskua izugarri handitzen du eremu horretan. Hori dela eta, beharrezkotzat jo da bertan esku hartzea. Horretarako, CAF enpresaren, URA Ur Agentziaren eta Udalaren arteko hitzarmena sinatuko da. Honen baitan, uholdegarritasun arazoari behin betiko irtenbidea emateko, lantegi sarrerako eraikinak eraitsiko dira ibaiaren ibilgua zabaldu ahal izateko. Eraisketa lanen aurretik, CAFek langileak lekualdatzeko eraikin berriak eraiki beharko ditu. Ibaiaren ibilgua zabaldu ondoren, eremu guztia eraberrituko da: oinezko zein autoentzako zubi berria eraikiko da, espaloia zabalduko da eta bidegorria mantenduz, bi norantzak berreskuratzeko aukera izango da.

AZAROAN BEASAINEN



Memoriaren eguna



Elkarbizitza eraikiz ekimenari atxikimendua adierazi dioten heritarrok



Igartzan bizikletentzat mahuka



XXXIII. Odolki-dastaketa eta lehiaketa (HITZA)



Mendi astea




Igartza Musika Beka entzunaldiak (HITZA)



Irisgarritasuna hobetzen



Dantzan.com-en eskutik dantza ikastaroa



Rokodromoa berritzeko lanak hasita



Santa Zezilia eguneko ekitaldiak



AZAROAK 25



LURRA LANDU, LURRAZ BIZI, LURRETIK ELIKATU

Berriki ateak zabaldu ditu izaera soziala duen baratze parke berriak. Guztira 57 baratze daude (16 Sarea fundazioarentzat, 4 ikastetxeentzat eta 37 herritarrentzat).

Erabiltzaile guztiei Jakoba Errekondoren "Landareak lantzen" gida-liburu berria banatu zitzaion inaugurazio egunean. Izan ere, Beasaingo Udalak Errekondoren liburu berria babestu du eta trukean baratze parkeko kideei banatu die. Egileak liburua aurkeztu zuen Beasainen hileko lehen larunbateko azoka berezian.

Aipatu azoka berezia lehen sektorea babestu, baserritarren lana balioan jarri eta garaian garaiko produktuen kontsumoa areagotzeko helburuarekin jarri zuen martxan Udalak. Azoka berezia indartu eta sustatzeko Jakoba Errekondoren laguntza eta aholkularitza jasotzen ari da Udala eta elkarlanean proposamen eta egitasmo ezberdinak lantzen eta aztertzen ari dira.

Recientemente se ha inaugurado el parque de huertas de Beasain que permite a las personas usuarias practicar la horticultura y cultivar verduras de manera ecológica para el autoconsumo. En el acto de inauguración se les repartió el último libro de Jakoba Errekondo "Landareak lantzen" que ha patrocinado el Ayuntamiento de Beasain.

Asimismo, Errekondo está colaborando con el Ayuntamiento en la promoción de la feria especial puesta en marcha por el Ayuntamiento con el objeto de revitalizar la feria e impulsar el primer sector, la labor de los y las baserritarras y el consumo de productos locales y de temporada.



JAKOBA ERREKONDOri elkarrizketa

Badirudi azken urteotan herri baratzeek indarra hartu dutela Gipuzkoan. Edozeinek eduki al dezake ortu bat?

"Cualquier persona puede tener una huerta en el balcón, en la terraza o en unas macetas. No hace falta tener conocimientos, lo principal es tener ganas"

Bai, edozeinek izan dezake ortu bat: balkoi batean, terrazan edo etxe atarian, leihoan edota lorontzi batean, adibidez. Edozeinen eskura dago, gogoa bakarrik behar izaten da.

Zein oinarritzko ezagutza behar dira baratze bat lantzeko?

Oinarri oinarritzkoena gogoa izatea da. Asko jakin gabe ere segituan ikasten da, baratzeak hori du ona. Landareen zikloak oso motzak dira, adibidez rabanitoa erein eta hilabete batean jateko moduan dago, letxua aldiz, erein eta asko jota bi hilabeteetara.

Baratzen segituan ikasten da, horregatik diot gogoa izanez gero edozeinek izan dezakeela baratzea eta denborarekin, noski, ikasi eta gehiago jakiten da. Baina hasteko gogoa nahikoa da.

Zein garrantzia esango zenuke dutela baratzeek gure kultura eta paisaian?

Izugarritzko garrantzia dute. Etxe guztietan izan dira baratzeak, izan baserrian, izan kaleko etxeetan; lehen, kaleko etxe guztiek ere baratzeak izaten baitzituzten.

Baratzea ez da bakarrik ortua edo barazkiak ekoizteko tokia, lorategia ere bada, baita gorputza, arima eta behar estetikoak asetzeko tokia ere. Horregatik euskaldunon baratzeetan ez daude bakarrik barazkiak, sendabelarrak, lokarriak egiteko landareak, fruta arbolak, arbustoak, loreak... ere daude. Horregatik da hain garrantzitsu zein berezia baratze estilo hori gure paisaian.



Argazkia: Dani Blanco (Argia)

Azokak ere baratzeei lotuta daude lurrak emandako produktuak saltzen direlako bertan, hein handi batean, baina kontsumitzaileen ohiturak asko aldatu dira. Baserritarren azoka biziberritzeko hileko lehen larunbatean azoka berezia ospatzen hasi dira Beasainen. Ekimen berri hau indartu, sustatu eta egonkortzeko laguntza eskaini diozu Beasaingo Udalari. Zein izan dira zure gomendioak?

Kontsumitzaileekin harremanak estutzea da gakoa. Lehenik eta behin kontsumitzailea erakarri egin behar da.

Azoka ez da inoiz izan barazki eta fruituak saldu eta erosteko tokia bakarrik, herriaren bilgunea izan da. Erosketak egin eta barazkiak eskuratzear gain, informazio trukerako eta ondo pasatzeko tokia izan da. Ikuspegi horretatik berreskuratu behar da azoka.

Azoka berezia bada benetan berezia egin behar dugu eta erakargarria bertako zein kanpokoentzat. Horretarako ekoizpen erakargarriak jarri behar dira, bertakoa, sasoikoa balioan jarritz.

Askotan bertakoa, hau da, Beasaingo baserrietan ekoizten dena inoren interesekoa ez dela

pentsatzeko joera dugu, baina jende pila dago bertako zein kanpoko bertara gustura etorriko litzatekeena. Horregatik, azoka horretan zer dagoen eta zein ekintza antolatzen diren ezagutzera eman behar da. Azken batean, berta-bertako balioan jartzea litzateke, benetan hori delako bereizgarri nagusia, beste tokitan beste gauza batzuk daudelako. Eta garrantzitsua da baita ere

“La clave está en estrechar las relaciones con las personas consumidoras, recuperando la visión de que la feria no es sólo un lugar donde comprar y vender frutas y verduras, sino que es un lugar de encuentro para pasarlo bien”

azoka herrian dagoen eskaintzarekin lotzea: ostalaritza, kultur talde zein jarduerak... horrek ere azoka zabaltzen lagunduko luke.

Zure iritziz, zein etorkizun dute gure inguruko baratze, baserri eta azokek?

Gero eta etorkizun hobea dute. Zigilu batetik haratago, kontsumitzaileek gero eta argiago dute zer den kalitatezkoa: garaikoa eta sasoikoa izatea. Eta argi dago horrek gure elikaduran eta bizi kalitatean duen eragin eta garrantzia.

Eta ez hori bakarrik, administrazio ezberdinak ere konturatu dira paisaiak mantentzeko eta gure kulturari eusteko beharrezko elementuak direla. Gero eta ekimen gehiago dago baserri, baratze eta azoken inguruan, kontzientzia gehiago dago eta horrek ekarriko du baserri eta ekoizle gehiago izatea gure inguruan eta hori guztiontzat ona da.



“Si la feria es especial, debemos hacerla realmente especial y atractiva para cualquier persona que se acerque. Para ello es necesario poner en valor el producto local y de temporada, promocionar las actividades especiales que se organizan y también unir la feria a la oferta del municipio: hostelería, actividad cultural... todo ello diferenciará la feria de Beasain del resto de las ferias”

ABENDUKO EGITARAUA PROGRAMACIÓN DE DICIEMBRE

ABENDUAK 13 DICIEMBRE

18:30 Udaletxeko Batzar Aretoa
Formakuntza eta enplegua genero ikuspegitik.

ABENDUAK 15 DICIEMBRE

Gabon argiak piztu.

ABENDUAK 18 DICIEMBRE

18:30 Udaletxeko Batzar Aretoa
Pertsona migranteen eguna. "Entre dos orillas"
Dokumentala eta mahai inguru.

ABENDUAK 22 DICIEMBRE - URTARRILAK 7 ENERO

19:00 Erakusketa: Erregeen Zamalkada 60 urte.
Usurbe Erakusketa Aretoa.

ABENDUAK 24 DICIEMBRE

12:00 Ongietorria Olentzero eta Mari Domingiri.
Loinazko San Martin plaza.
17:30 Olentzero eta gabon eskea.

ABENDUAK 25 DICIEMBRE

12:00 Beasaingo Goizeresi txistulari elkartearen kalejira.

ABENDUAK 26 DICIEMBRE

11:00-14:00 | 16:30-20:00 Haurrentzako puzgarriak.
Gernika pasealekuko frontoia.

ABENDUAK 26-27 DICIEMBRE

11:00-14:00 | 16:30-20:00 Txutxu trena.
Loinazko San Martin plaza.

ABENDUAK 27 DICIEMBRE

17:00 | 19:30 Goazen 4.0 antzerkia. Usurbe.

ABENDUAK 28 DICIEMBRE

11:00-13:00 Umeentzako tailerrak. Igartza.

ABENDUAK 29 DICIEMBRE

19:00 Beasain Kirol Sariak. Igartza.

ABENDUAK 31 DICIEMBRE

10:00 San Silbestre txiki solidarioa.
12:00 San Silbestre krosa.

Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On 2018




ERAKUSLEIHO ETA LOKALEN DOTORETZE LEHIAKETA CONCURSO DE ESCAPARATES Y LOCALES

**Herritarrek botoa emateko epea: abenduaren 11tik
23ra Plazo para votar: del 11 al 23 de diciembre**

NOLA? ¿CÓMO?

- **Bareak-eko bazkide diren establezimenduetan** En los establecimientos asociados de Bareak
- **iGunean/ en el iGunea**
- **Bareak-en facebooken/ en la página de Facebook de Bareak**

Bozkatzen dutenen artean 3 sari zozketatuko dira Entre las personas votantes se sortearán 3 premios.



LIBURU ETA DISKO AZOKA

**ABENDUAK 15-16-17
Gernika pasealekua**

DATUEKIN JOLASEAN

Ba al dakizu pertsona batek zenbat zabor sortzen duen eguneko?

¿Sabes cuántos residuos genera una persona al día?



**EGUNERO POR DÍA:
1 kg**

**URTEKO POR AÑO:
365 kg
(bataz beste | promedio)**

Hondakinen %75a bereizten da eta gaikako bilketaren bitartez biltzen dira maiztasun ezberdinarekin. Adibidez, ontzi arinen bilketa asteko egun guztietan egiten da. Herritarrek sortzen dituzten hondakinen bilketa eta kudeaketagatik 112€ ordaintzen dituzte urtean etxebizitza bakoitzeko (0,3€ eguneko). Beraz, 4 kideko familia batek 4kg hondakin sortzen ditu egunean eta eguneko 0,3€ ordaintzen ditu.

El 75% de los residuos se deposita de forma separada y cada fracción se recoge selectivamente y con diferente frecuencia. Por ejemplo, la recogida de los envases ligeros se realizada cada día.

Las/los beasaindarras pagan por vivienda 112€ anuales por la gestión y recogida de los residuos generados (0,3€ al día). Por tanto, una familia de cuatro miembros genera 4kg de residuos diarios y paga por ello, 0,3€ al día.

LOTURAK ENLACES



• **kzGunea**
www.kzgunea.eus

• **Musika Eskola**
www.beasaingomusikaeskola.eus



• **Antzizar kiroldegia**
www.antzizar.net

• **Udal Euskaltegia**
www.beasain.eus/euskaltegia

www.beasain.eus



Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016